

Goierri

306. zenbakia 2006ko irailak 5

↑ ARRANTZA ESKOLA
← URAREN INTERPRETAZIO ZENTROA

30 urte
zuen artean
betiko konfidantza eta
profesionaltasunarekin

J. M. Barandiaran 1 ORDIZIA
Tel.: 943 16 00 51 - 615 78 79 08

nick's
ENGLISH CENTRE

Kurtso hasiera

Irailak 18

Izen ematea

Irailaren 4tik aurrera
Arratsaldeko 6etatik 8etara



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307




Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.*

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

NOBEDADEA

Moldatu zure gorputza,
KENDU LEKUKO GANTZAK
KIRURGIARIK GABE,
ultrasoinuen
bidezko lehen teknika
ez erasokorraren bidez


ULTRASHAPE
CONTOUR I
Metodoa

Gu baserrian jaio giñaden ta baserrian gabiltza, bururatutako gaian bertan egin nahi nuke hitza; lana egiñez toki danetan kristauaren bizitza, baña txarrena juzgatuzten det, lurraren nekazaritza.

Gaur baserrian eza hartutzen behar litzaken sosik, guretzat ez da agiri orain etorkizun apraposik, senti dedana garbi botatzen batere ez daukat lotsik; gaur baserrian ez du jendiak lana egiteko pozik.

Baserri lana nolakoa dan egongo zera jakinda: gauez berandu lanari utzi goizean goiz ekinda. Nik'e kalean bizi nahi nuke baserriatik aldeginde; alper guztiak jan dezatela bakoitzak berak eginda.

Florentino Goiburuk, 1971-n Ordizian botatako bertsoak, 'Goiburu eta Iraola kantu kontari' liburutik.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Bezeroen arreta: 943 304 346

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA


- 4. Iritzia:** Bittor Gorria.
- 5. Ingurugiro txokoa:** Nondik dator kontsumitzen dugun energia?
- 6. Errezeta:** Albondigak.
Aholkua: Apatia edo geldotasun existentziala.
- 7. Elkarrizketa:** Pelleta: zerrautxezko patilatxoaren beroa.
- 10. Erreportajea:** Zaldibia: uraren museo.
- 15. Egitaraua:** Euskal jaiak 2006.
- 18. Elkarrizketa:** Asier Zabaleta, dantza garaikidearen erritmoan.
- 22. Non zer.**
- 24. Iragarki laburrak.**
- 26. Argazki zaharra.**



Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala





Bittor Gorria

*Gu guztiok ere,
bata
bestearentzat,
eta ezagunen
artean, ez
etsaien artean,
eulien antzeko
jarrerak ez ote
ditugun
batzuetan,
behar baino
gehiagotan.*

Euliak, patatak eta gu

Atseginak izaten dira oporraldiak ematen dizkigun aukerak. Horietako bat, animaliak eta natura bere izatean mirestea izaten da. Txundituta utzi gaituzte askotan. Baina ez dira beti guk idealizatu nahi adina erromantikoak izaten. Duela aste batzuk paraje paregabeen nengoen: 2.000 metro eskas, gailurrez inguratutako laku edo aintzira baten uretan, beren hankak freskatzen ari zen behi multzo bat ikus ahal izan nuen. Bai zoragarria! Bada... Ez! Niretzat penagarria izan zen. Bai, momentu batean alderdi penagarria nabarmendu zitzaidan. Esplikatuko dizuet: nahiz eta behiak elkarri isats eta belarriekin babestu eta defenditu, euliek (niri, idazten ari naizen momentu honetan bezala) ez zieten behi gaixoei atsedenek uzten; tortura nolakoa izango den ez dakit, baina behiak jasaten ari ziren eraso aldia, antzekoa iruditzen zitzaidan. Euliak! Denok dakigu zein aluak izan ohi diren... Edertasun eta atsegin osoa haren erdian, eragozpen bakarra, arantza bakarra, ezten bakarra... euli haien muturra. Ezin ote dute beste era batera bizi, elikatu, denbora igaro...? Eulia, higuigarria zaigu benetan, denok saiatzen gara uxatzen. Akaso, eulia izateak berekin daraman zama izango da,... ezin izango dute bestela izan... ez dakit...

Eta pentsatzen jarri nintzen, gu guztiok ere, bata bestearentzat, eta ezagunen artean, ez etsaien artean, eulien antzeko jarrerak ez ote ditugun batzuetan, behar baino gehiagotan: gure galderak, hamai-ka aldiz errepikatutako txisteak, istorioak, telefono-deiak, irainak, bukaerarik ez duten eta bost zentimo balio ez duten kontuak... Nire ingurukoentzat, zuretzat irakurle borondatetsua, euli haiek bezalakoa ote naiz? Nireganako 'euli' direnentzat be-

rriz, behi haiek erakusten zuten eroapena, pazientzia, nahi nuke.

Ez nuke eulien irudi ezkor honekin bukatu nahi. Ba al dakizu zerengan aurkitu dudan guretzako baikor eta erakargarria izan daitekeen irudia? Patatarengan. Izan ere, pentsa dezagun momentu batean, gure eltze eta zartaginetatik, gure plateretatik eta xorrotxoetatik, patata desagertzen dela... Txuleta ederra, arkume erreka, arrautza frijituak... patatarik gabe... ei? Ez patata egosi, ez frijitu, ez pure... Hona gure patata! Bere isiltasunean, bere apaltasunean; merkea, lur azpian bizi dena, inongo protagonismorik gabea... hamaika gozamen emailea. Zenbat gose ase, hutsik ziren platerak bete, haurren negar barre bihurtu ote dituzun...!

Bagara gizakiak euliak bezalakoak izaten garenak, baina baita beste batzuetan patatak bezalakoak ere.

'Euliek' ekartzen diguten amorrua baretzeko on egingo digu, egunero gure artean zenbat 'persona-patata' ditugun konturatzeko... On egin!

Hauek horrela eta gehiago ere bai...

Irakurle mizkin bat edo bestek gai txatxua hartu dudala pentsatuko du. Beno, akaso hala izango da, baina ez uste izan bakarra edo lehenengoa naizenik. Bai patatak eta bai euliak idazle ospetsuen inspirazio iturri izan dira: Antonio Machado badu idatzia 'Euliak' ('Las moscas') izeneko olerkia eta Pablo Nerudak, nobel saria jaso zuenak, patatari oda eder bat eskaini zion.

Euskal literaturan ere baditugu eulie buruzko idazkiak. 1842 urtean Agustín Pascual Iturriagak idatzitako ipuinen artean 'Euliak' izeneko bat dugu. Eta ezagunena, Joxe Mari Iturraldearen 'Euliak ez dira argazkietan azaltzen', 2000. urtekoa.

Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 lgara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI

Kol. zkia.: 764

Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce María Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Nondik dator kontsumitzen dugun energia?

Eguzkia da gure planetan dagoen energiaren zatirik handienaren iturria, haizeen arduraduna, gainazaleko uren lurrinzearena, hodeiak sortu eta eurien eragitearena. Eguzkiaren beroa eta argia dira zelula bakarreko landare eta animalien garapenerako beharrezko diren erreakzio kimikoetarako oinarriak. Eta landare eta animalia horiek dira, mendeen poderioz, gaur erabiltzen ditugun erregai fosilak sortu zituztenak.

Landareek eguzki-energia energia kimiko bihurtzen dute, eta hori beren zeluletan metatzen da. Animalia belarjaleek energia kimikoa erdiesten dute, beren molekuletan gordetzen dute, eta animalia haragijaleenganaino iritsiko da energia hori. Horrek esan nahi du energia lortzeko, energia gordeta duen gorputz batek hartu behar dugula, eta gero eraldatu. Gorputz horiei energia-iturriak deitzen zaie.

Lurra energia-kopuru izugarriak ditu, iturri-mota askotan gordeta. Horien artean, ikatza, petrolio, gas naturala, uranioa, haizea, eguzkia eta ura nabarmendu ditzakegu.

Energia iturrien sailkapena

Berriztatzeko gaitasunaren arabera: Berriztatzekoak diren energia-indarrak teorian inoiz agortuko ez direnak dira. Garrantzitsuenak eguzkia, haizea, ura, mareak eta biomasatik datoztenak dira.

Berriztatu ezin daitezkeen energia-iturriak kopuru mugatua dauzkagu. Planeta oso erreserbak agortzen direnean, denbora luzea emango dute berriro sortzeko. Arruntenak hauek dira: ikatza, petrolio, gas naturala eta energia nuklearra.

Erabileraren arabera:

Erabileraren arabera sailkatuz gero, energia-iturri primarioak eta sekundarioak bereizten dira. Primarioak zuzenean naturatik eskuratzen direnak dira. Horien artean, ikatza, petrolio edo gas naturala daude. Sekundarioak primarioak hainbat teknika erabiliz eraldatuz lortzen direnak dira: elektritzitatea edo erregaiak.

Energia nuklearra

Energia atomikoa edo nuklearra, atomo batzuk besteetan eraldatzen duten bi fenomenori dagozkie: fisioa eta fusioa.

Fisio nuklearrean, nukleo astun bat bonbardatu egiten da neutroiekin, hari eta bi nukleotan deskonposatzen den arte. Erreakzio horrek irauten duen artean, energia handia askatzen da eta bi edo hiru neutroi igortzen dira.

Bi nukleo oso arin batu egiten dira nukleo astunago eta egonkorragoa osatzeko, eta prozesu horretan, energia-kopuru handi bat askatzen da, fisio-prozesu batean askatutakoa baino handiagoa. Temperatura handiak erdietsi behar horrek zaildu egiten du erreakzioa gaur egungo teknologiaren bidez gauzatu ahal izatea.

Energia nuklearra arriskutsua izan daiteke, behar bezalako neurriak hartzen ez badira. Horretarako, segurtasun-neurri zorrotzak behar dituzte zentral nuklearrek. Seguruak izanda ere, zentral nuklearrek oso toxikoak diren hondakinak sortzen dituzte, eta hori arazo larria izan daiteke ingurumenerako, milaka urtetan aktibo irauten dutelako.

Energia aurrezte, guztion betebeharra

Gure energia-baliabideen erreserbak ugariak badira ere, ez dute beti iraungo. Ekonomikoki ondasun eskasak dira eta bere ekoizpena garestia da. Beraz, ezin dira xahutu. Ez da energiarik galdu behar energia hori sortu, manipulari eta garraiatzean, eta aprobetxamendua ere osoa izan behar da banakako eta kolektiboko aurreztearen bidez.

Kontsumitzaileek energia alferrik gal ez dezaten, sarritan izaera ekonomikoa duten zigor-neurri batzuk ezarri ohi dira. Era horretan baliabide ez-berriztagarriak ahitu daitezela ahalik gehiena atzeratzeko ahaleginak egiten dira. Erakunde publikoek nahiz pribatuek aurrezpen energetikoa bultzatu behar duten arren, beharrezkoa da energia gure etxe- eta lan-ingurunean aurrezte, eta gure eguneroko bizitzan arrazoizko erabilera bat ahalbidetuko duten ohiturak hartzea.

[www.hiru.com web gunetik ateratako informazioa](http://www.hiru.com/web/guest/ateratako/informazioa)

JAKIN BEHARREKOAK

Munduko larre-gune nagusiak: Afrikar sabana: Afrika kontinentearen parte handi batean zabalitzen da, Sahararen hego mugatik behera dauden eskualdeetan eta Hego Afrikako eskualdeetan. Ipar Ameriketako larre handiak: AEBn erdian kokatua, Lurreko eremu landu garrantzitsuenetarikoa da. Hego Ameriketako panpak: Argentinako erdiguinea. Asia zentraleko larreak: herri nomadak bizi diren larre-eremuak.

Enbatak: Euskal Herriko kostaldeko berezitasun bat dira enbatak edo galernak. Zikloi antzeko batzuk dira. Ez dira fronte bat igarotzeari lotutakoak izaten. Udaberriaren bukaeratik udazkenera bitartean izaten dira, bereziki udan. Haizea bat-batean mendealde/ipar-mendealdetik gogor jotzen hasten da eta itsasoa zakartzen da, temperatura agudo jaitsiz eta hezetasun erlatiboa eta presioa handitu egiten dira kolpean. Haizea aldatu eta laster lainoa sartu ohi da. Oraindik ez da ondo eza-gutzen zergatik gertatzen den aldaketa bortitz hori. Badirudi lehorretik itsasorantz datorren aire-masa bero batek itsasoko aire freskoarekin topo egitean gerta litekeela. Halako batean, itsasoko aireak bi aire-masen arteko muga ezegonkorra hautsiko luke eta lehorreko airearen azpitik sartuko litzateke.



Maialen Zufiria
Siglo XX harategia
Ordizia

Osagaiak

Albondigak egiteko:

- Haragi txikitua
- Ogi birrindua
- Arrautza
- Gatza
- Perrexila
- Ogia
- Esnea

Saltsa egitako:

- Tipula
- Piper berdea
- Piper gorria
- Haragi salda

Tipula, perrexila eta ogia esnetan busti eta turmixean pasatu. Nahasketa honi haragi txikitua, ogi birrindua, arrautza eta gatza gehitu, eta nahastu.

Ore horri pilota forma eman, irinetan pasa eta olio berotan frijitu. Barrutik gutxi eginda utzi behar dira saltsatan egiten bukatzeko.

Saltsa egiteko barazkiak txikitu eta olio pixka batekin sutan jarri goxatzen. Kolore iluna hartzen dutenean haragi salda bota eta irakiten eduki. Gatz puntua eman eta turmixetik eta txinotik pasa.

Bukatzeko, pilotak saltsatan berotu eta jateko prest daude.

Apatia edo geldotasun existentziala

AHOLKUA

“Ez dut ezertarako gogorik”, “Egunero berdin”, “Ez diot zentzurik hartzen nere bizitzari”... Ezagun egiten zaizkizu esaldi hauek? Egunero sentitzen duzunaren islada bihurtzen baldin badira, apatiko zaudela esan nahi du, zerbait ongi ez doanaren seinale dira. Denborarekin pasatzen ahal da, baina depresio baten seinale ere izaten ahal da. Apatia hau, hutsune hau, denok sufritu dezakegu, edozein adinetan.

Apatiaren pizgarriak

- Galera bat (maite duzuen norbait, lanpostua, bikoitea...).
- Errutina handia duen bizimodua.
- Estresa eta nekea sortzen duen lan aldia.
- Maitasun harremanik ez izan eta bakarrik sentitzea.
- Gisa honetako pentsa-

mentuak izan: “Ez dakit zer nahi dudan”, “Ez diot zentzurik aurkitzen nere bizimoduari”...

- Garen bezalakoak onartuak ez izateko beldurrez itxurak egitea.
- Gaur egun daukagun gehiegizko konpetibitatea.

Zer egin dezaket?

Apatiaren aurrean, lehenbiziko gauza zer gertatzen zaigun galdetzea da. Gure barnera begiratu behar dugu, norbera aditzen ikasi, baita juzkurik egin gabe besteak aditzen ikasi ere. Gure bizitzan egitan zer nahi dugun jakin behar du-

gu, besteek gu zer izatea nahiko luketeen kontuan hartu gabe eta “posible den ni onena” bultzatu, onartu den eta norbera maite duen “ni” bat.

Modu berean, garrantzitsua da egunero erronka txiki berriak jartzea, altxatu eta lortzera borrokatzeko motibatzen gaituztenak. Erronka hauek errealistak izan behar dute, lortzeko modukoak baina ez oso errazak, bestela, ez baitugu helmugara ailegatzeko motibaziorik lortuko.

Eta garrantzitsuena, gure bizitzaren eta zoriontasunaren arduradun bakarrak gu geu garela jakin.



Rakel Amigo Sola
Nuarbi zentro
psikopedagogikoa

***Gure bizitzaren eta
zoriontasunaren arduradun
bakarrak gu geu garela jakitea da
garrantzitsuena***

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

Pelleta: zerrautsezko pastilatxo beroa

Zeraingo Txirbil kooperatibakoek Austriatik eta Suediatik ekarri dute berogailu eredu berria

Urte asko daramazkitez Zeraingo Txirbil kooperatibako Andoitz Telleria, Aitzol Telleria eta Aritz Iturrioz, aroztegiko sobrak aprobetxatuz etxerako berogailu sistema hoberena aurkitu nahian. Han eta hemen, eta internetan zehar, ordu asko pasatu dituzte eta azkenean aurkitu dute: pelleta. Zerrautsare-

kin egindako pastilatxoak dira pelleta. Zerrategien eta Eusko Jaurlaritzaren interes handiarekin egin dute topo Txirbilekoek, eta pelleta, berogailuak eta kalderak bakarrik merkaturatzen hasi beharrean, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako hainbat zerrategi elkartu eta irailerako martxan izango da enpresa berria.



**Jauregi
TOLDOAK**




INSTALATZAILE OFIZIALA



LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82

Andoitz eta Aitzol Telleria anaiak, arotzak biak, etxea egiten hasi zirenean, bero-gailu sistemarako, euren aroztegian sortzen duten soberakinak aprobetxatzeko bideak aztertzen hasi ziren. Han eta hemen begira hasi eta Europa aldeko herrialde hotzagoetatatik, Austriatik eta Suediatik, hartu dute ereduak: pelleta. Ingeleseko hitza da pellet-a, pastila esan nahi du.

Pelletaren gaia sakonean aztertu eta beraien kontsumorako izango zen pelleta sortzeko aukera aztertzen hasi ziren. "Guk etxean pelleta egiteko makinaren bat jartzeko begira hasi ginen baina makina handiak dira, tona asko egiten dituzte. Inbertsio handiak egin behar dira", zehaztu du Andoitz Telleriak. Baina azkenean jende gehiago interesatu da eta hasierako asmoari beste forma bat eman diote. Bideragarritasun plana Arrasateko Saiolanen egin dute. Informazioa biltzen ere lagundu diote, aurretik mordo bat bilatua bazuten ere. Andoitz Telleria, Txirbil kooperatibako zeraindarrak eman dizkigu pelletaren eta beraien proiektuaren berri zehatza.

Zer da pelleta?

Prentsatutako egurra da azken batean pelleta. Zerrategietako zerrautsa eta aroztegietako txirbil garbia hartu eta lehortu egiten da. Zerrautsa eta txirbila xehetu, dena granulatu berdina gelditzeko, eta dena prentsatu egiten da makina berezi batzuetan. Prentsatzan den garraian, berotu ere egiten da eta bero horrekin, lignina urtu egiten da eta berriz hoztutakoan gogortu egiten



Sistema aurreratua

Lurralde hotzagoetako esperientzia ekarri dute Goierriera eta Euskal Herrira Txirbil kooperatibakoek. Suediatik eta Austriatik sistema eta makineria aurreratua ekarri dute. Galdarak adibidez, biltegitik behar adina pellet hartzen du. Haize beroarekin hartzen du sua pelletak. Sutaitsa galdaren azpialdean dagoen kajatxora erortzen da. Austriako galdarek bakarrik garbitzeko sistema berezia daukate.

Sistema manuala edo automatikoa dute galdarek. Termostatoen laguntzaz, etxe barruko eta kanpoko tenperatura hartzen ditu kontuan galdarak, berotasuna sortzeko garraian.

Beheko suaren lekua

Beheko suaren lekua ere bete dezake pelletak. Galdara berezia da horretarako ere. Modernoa. Telebistarena bezalako mandoarekin pizten da. Aurrez programatu daiteke. 10 bat minutuan pizten da sua. Galdarak bere biltegitxoa dauka eta biltegitkada batekin, 30 ordu egon daiteke martxan.

da. Horregatik gelditzen da gogorra. Lortzen den dentsitatearekin, uretan ez du flotatzen. Harrikoskorra bezala behera joaten da. Makinatik beroa ateratzen da, hoztu eta zakutan sartu behar izaten da. Makinaria oso garestia da eta eskulan oso gutxi dauka. Suediako lantegi batean, oso handia zen, eta errelebo bakoitzean bi lan-guru aritzen ziren lanean.

Zein neurritako pastilak izaten dira?

Pelleta gehienez, 6 milimetrokoa egiten da. Suedian asko 8 milimetrokoa erabiltzen da, kaldera handietarako. Hemen 6 milimetrokoekin hasiko gara, kalitatezko pelletarekin.

Zein ezaugarri ditu pelletak?

Ekologikoa, berriztagarria eta ekonomikoa. Erabat

ekologikoa da, egurra da eta. Berriztagarria da. Sua egiteko CO2 botatzen du baina CO2ren emisioa neutroa dela kontsideratzen da, egurra basoan uzten denetan CO2 ere bota egiten du berdin-berdin. Beraz, ez da CO2 gehitzen, ezta gutxitzen ere.

Ekonomikoa da, gasoilaren erdi prezioan ateratzen da gutxi gorabehera. Tona

Goierritarra

943 16 00 56 goierritarra@goierrikohitza.info

LEIAR **LEIAR** **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

Enpresa berria

Txirbil kooperatibakoak izan dira aitzindari pelleta geurera ekartzen. Puntua beraiek jarri dute eta puntuari erantzun diotenak, asko izan dira. Batetik, zerrategiak eta bestetik, Eusko Jaurlaritzara bera. "Hasieran ez genuen horrelako erantzunik espero. Eusko Jaurlaritzara interesatu egin da eta bera saiatu da denon artean enpresa bat sortzea", adierazi digu Andoitz Telleriak.

Pelletaren aldeko apustua egin duten Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako hainbat zerrategi eta aroztegi elkartu eta bi enpresa sortu dituzte: enpresa batek, galdarak eta berogailuak jarriko ditu; eta besteak, pelleta egin eta banatuko du. Biek ere, Bizkaian izango dute egoitza.



Andoitz Telleria, Aritz Iturrioz eta Aitzol Telleria dira Txirbil enpresako kideak.

bat pelleta 200 euro inguru kostatzen da. Hau da, kiloak, 20 zentimo inguru.

Zein lekutan erabiltzen da batez ere pelleta?

Austrian, Suedian eta Italian. Italian duela 4 bat urte hasi ziren. Austria da puntero. Oso kalitate oneko kalderak egiten dituzte. Suedian ere asko erabiltzen dute. Kalderak simplexeagoak egiten dituzte. Suedian asko egiten dutena da, kaldera handi bat jarri eta auzo bat, komunitate bat berotu. Austriarrak kaldera txikitan oso onak dira. Italian ere egiten dituzte. Bi aukera eskainiko dira: Austriakoak garestiagoak eta Italiakoak merkeagoak, lan handiagoak ematen dutenak, garbiketan.

Suedian eta Austrian izan gara eta ikusi dugu komunitate edo auzo osorako kalderak dituztela. Austrian berogailua gasoilarekin jarri behar duela esaten baduzu, erotuta zaudela esango dizute. Pelletarekin edo egurrarekin jartzeko esango dizu. Italian duela 4 bat urte hasi ziren Italian pelletarekin eta bikoiztu egin dute berogailu produktzioa.

Edozein etxetan jar ahal liteke horrelako berogailu bat?

Tximinia behar da, baina tximinirik ez badago, fatxadara ere atera liteke, gasarena bezala. Kerik ez du ateratzen.

Irailetik aurrera pelleta Bizkaian hasiko da pro-

duzitzen. Bitartean, nondik ekartzen duzue?

Guk kamioikada bat Frantziatik ekarri genuen eta orain beste bat Toledotik ekarriko dugu.

Berogailu sistema berria zer moduz hartu da Goierriin?

Jendea hasi da informazioa eskatzen. Ur beroarentzako eguzki plakak jarri litezke, baina berogailuarentzako sistema ekologikoa eta eroso nahi duenarentzat, pelleta da aukera. Zerrategien artean ere interes handia dago. Elkartu egin gara eta ondorioz, gu bakarrik hasita baino indartsuago aterako da merkatura.

Sari bat baino gehiago ere irabazi duzue.

Goiekikoa, Ideia Berritzaileen lehenengo saria eta Eskualdeko Garapen Agentzien elkarteak ematen dutenetan, 3. saria.

Eusko Jaurlaritzaren aldetik ere, interesa bada-goela dirudi.

Bai, interes handia dago. Alde batetik, gasoila eta gasa kanpotik gutxiago ekartzeko, eta bestetik, bertako egurrari balioerantsia eman nahi zaio. Bertako basoa oso jaitsita dago eta batez ere Nekazaritza Saila ari da bultzatzen. Bertako egurrarekin lana egiten duen jendea laguntzen saiatzen ari da Eusko Jaurlaritzara. Eusko Jaurlaritzara ari da exijitzen dena bertako egurrarekin egin behar dela. Egurra oso gaizki tratatu da hemengo zerrategietan, fama txarra hartu du. Egurra kalitate txarrekoa ez izanagatik, egurra gaizki tratatzen baduzu, fama txarra hartzen da. Suediatik ekartzen da egurra, eta hemengo zerrategien kalitatea igo nahi da. **Dirulaguntzarik ba al dago pelletaren sistema jarri nahi dutenentzako?**

% 40 arteko dirulaguntzak ematen ditu Eusko Jaurlaritzak.

Aroztegiarekin jarraitze-ko asmoa daukazue ala pelletari helduko diozue buru belarri?

Aritzek aroztegiarekin jarraituko du eta bi anaiok, pelletaren munduarekin hasteko asmoa daukagu. Dena den, aroztegiarekin ere jarraitu beharko dugu, hasieran behintzat.

Etorkizuna ikusten diozue beraz, pelletari?

Bai, dudarik gabe, gero eta jende gehiagok ikusten dio gainera.

	biok z e r b i t z u a k	kudeaketa
		fiskala
		kontablea
		merkatala
		laborala
Tel 943 88 44 00		
Faxa 943 80 51 27		
www.biokzerbitzuak.com		
Ordizia Goierri, 12		

	RENAULT
	LAZKAO GARAJEA
Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901	
Senpere Industrialdea LAZKAO	

Zaldibia: uraren museo

Arrantza Eskola eta Uraren Interpretazio Zentroa egokitzen ari dira CAFek Arkakan duen zentrolean

Amundarain errekaen er-tzetik, Arkaka bailaran ba-rrena, 3 kilometroko he-rribidea zeharkatuz, Arrantza Es-kolaraino eta Uraren Interpreta-zio Zentroraino iritsiko gara; hau da, Arkakan CAF enpresak duen zentral hidroelektrikoraino. Zen-traleko etxean, Uraren Interpreta-zio Zentroa jarriko dute eta urte-gian, Arrantza Eskola. Urte amaie-rarako, guztia prest egotea aurrei-kusten du Patxi Aierbe, Zaldibiako alkateak.



IBAI ONDO
ARROZTEGIA

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MEREANTILIA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Duela 105 urte sortu zuen Beasaingo CAF enpresak, Zaldibiako Arkakako zentral hidroelektrikoa. Aralar-ko uren indarrarekin argi indarra sortu izan du, eta sortzen du, CAFek bertan. Hemendik aurrera, beste erabilpen bat ere izango dute zentral etxeak eta urtegiak, uraren eta aisiaren erreferentzia bihurtuz.

Hiru zati ditu Zaldibiako Udalak, CAFek, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako proiektu honek: bata, Zaldibiatik, Arrantza Eskolarainoko herribidea berreskuratzeko, 3 kilometro ingurukoa; bigarrena, Arrantza Eskola; eta hirugarrena, Uraren Interpretazio Zentroa. Proiektua irekia denaren seinale, laugarren aukera bat ere aztertzen ari dira: uraren ikerketarako laborategia.

Lanak atzeratzen ari badira ere, urte amaierarako, gutzia prest egotea aurreikusten du Patxi Aierbe Zaldibiako Alkateak.

Uraren Interpretazio Zentroa

CAFen zentrala dagoen etxean ari dira egokitzen Uraren Interpretazio Zentroa. "CAFek noiz bukatuko zain daude, eraikuntza edukiz betetzen hasteko. Ikusentzunezkoak izango dira protagonista. Ura eta erreka gaia izango denez, museoan bertan ura egongo da: panel batzuetatik behera datorrena, erreka bat ere egongo da zoruan. Ura ikutzeko aukera egongo da. Munduko ur ezberdinen erakusketa bat, inguruko bailara eta Amundarain erreka ikusteko begiratoki bat... Museoaren beste zati



CAF enpresarena dena zentral hidroelektrikoan kokatuko da Uraren Interpretazio Zentroa.

Ikerketarako gunea

Laugarren proiektu batearako aukera ere ikusten du Patxi Aierbe Zaldibiako alkateak: uraren inguruko ikerketak egiteko laborategi antzeko bat jartzeko. "Aukera berriak ireki daitezke. Aukera horietariko bat, ibai arro esperimentalak bezala hartzea. Hau da, bailara hau Aralar Parke Naturalaren barruan dago eta aukera handiak ematen ditu gauza ezberdinak ikertzeko, batez ere uraren gaia. Aralarrek aukera ematen digu, karstikoa delako, mundu bat dago aztertzeko. Gai honen inguruan proposamen serio bat egin eta Jaurlaritzari eta Diputazioari aurkeztu diegu. Interes handia azaldu dute eta gaia aztertzen ari gara. Horrelako ikerketa gunerik inon ez dago eta bailara honek aukera



Patxi Aierbe, Zaldibiako alkatea.

batean, zoruan, kristalezko egitura handi bat jarri eta uraren salto bidez, argindarra nola sortzen den ikusteko aukera izango da".

105 urte badira bertan argindarra sortzen dela. Bi turbina daude bertan. "Argindarra sortzen jarraitzen du oraindik ere zentralak. Euri asko egiten duenean, argi asko eta gutxi egiten duenean, argi gutxi. Bi sistemekin sortzen da argia: Francis eta Pelton. Baten berezitasuna da, salto eta ur gutxixegorekin ere argia egin egiten duela. Ura kanalaren bidez hartzen da, deposituetan pilatzen da. Puntu batera iristen denean, askatu egiten da ura eta orduan sortzen da argindarra. Ondoren ura, Amundarain errekarara eta Arrantza Eskolara joango da".

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI *Jose Ramon Pato Prieto*
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak




Uraren Interpretazio Zentroa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak finantzatu du 250.000 eurorekin. Diputazioa ere parte hartu du proiektuan eta 100.000 euro jarri ditu.

CAF

CAF enpresak parte hartze zuzena dauka proiektu honetan, zentrala, CAFen jabetzakoa delako alegia. Dena den, 10 urterako hitzarmena sinatu dute, baita handik aurrera ere hitzarmena berritzeko aukera ere. Era honetara, neurri batean, CAFeko zuzendaria den Andres Arizkorretak duela 15 urte izan zuen asmo bat ere beteko da Patxi Aierbek zehaztu digunez: "duela 15 urte enpresako arkitektoari zentral etxearen diseinu bat egiteko eskatu zion Arizkorretak, batez ere haurrei eta ikastetxeei begira, bertan egiten dena ezagutzera emateko. Beldurtu eta atzeratu egin zuen, irisgarritasuneko hainbat kontu eskatzen zizkiotelako. Aldapak, ate zabalagoak... Era honetan, Arrantza Eskolaren proiektuarekin, Arizkorretarengana joan nintzenean, 15 urte atzera egin eta orduko plana ekarri zuen gogora. Hortxe hasi zen elkarlana".

Uraren Interpretazio Zentroan bertan, aretotxo bat prestatu eta txukunduko du CAFek bere erabilerarako. Museoa ere izango du erabilerako eskubidea.



Arrantza Eskolaraino iristen da herribidea.

Aparkalekua Lazkao Etxen

Proiektu eta azpiegitura berri honek jendea erakarriko du eta jendearekin batera, ibilgailuak. Aparkalekuari dagokionean, Lazkao Etxe jatetxean izango da aparkaleku ofiziala, Arrantza Eskolatik 500 metrora. Patxi Aierbek aitortu duenez, jendeak eta batez ere ibilgailuek, kezka bat baino gehia-

go sortzen dizkio: "hasierako proiektuaren arabera, 100 laguntzako aparkalekua aurreikusten zen. Baina guk ez genuen horrelakorik nahi: ahalik eta simpleena, ahalik eta inpakturik txikiena... izan zedila nahi genuen", gaineratu du Aierbek.

Aurtengo uztaileko esperientzia ikusita dena den, beldurtu ere egin dira zaldi-

3 km-ko herribidea

Uraren Interpretazio Zentroak eta Arrantza Eskolak izango du hirugarren eskaintza bat: Zaldibiatik Arrantza Eskolaraino, Amundarain errekarren erretetik, Arkakako bailaran barrena, 3 kilometroko herribidea berreskuratu baitute. "Nahikoa utzita zegoen herribidea. Leku batzutan gainera, baseritarrek eurentzat hartuta... baina inongo arazorik ez da egon. Baseritar batekin adibidez, trukea egin dugu. Bidea zabaldu eta 'Todo Unoa' botatu", zehaztu du Aierbek.

Hurrengo asmoa, Lizarrustirainoko eta Ordiziarainoko herribideak txukuntzea da Patxi Aierbek aurreratu digunez. Oinezkoek beste aukera bat izango dute beraz.

biarrak. "Izan ziren bero ikaragarri haiekin, izugarria izan zen zenbat jende etorri zen. Bidea blokeatu ere egin zen, hainbeste ibilgailurekin. Aurtengoa ikusita, errepedea itxi egin beharko dugu uda partean, horixe izango da soluzioa. Aparkalekua, Lazkao Etxe jatetxean egongo da, 500 metrora, baltare aldaparik gabe", zehaztu du Zaldibiako alkateak.

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfno.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka. 649 RPS. 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Arrantza Eskola

Arkakako urtegiaren Arrantza Eskola egokitu dute arrantzan egin eta ikasi dutenei begira. "Herrian arrantzarako zaletasuna betidanik egon da. Arrantza eta Ehiza elkarteak ere badago, Gaztelu eta beti egon da gogo horrelako zerbait antolatzeko", dio Patxi Aierbek Zaldibiako alkateak.


Zurezko egitura jarri dute urtegiaren alde batean, arrantzaleentzako aulkiekin. Ezindu fisikoentzako aulki bereziak ere jarri dituzte. "Zurezko egitura guztia, uraren gainean geldituko da, oso polita gelditzen da. Momentu honetan ur gutxiarekin dago, une honetan kanaletan lanean ari baitira", zehaztu du Aierbek.

Batez ere haurren artean arrantzaren mundua txertatzea da Arrantza Eskolaren helburua. Ikastaroak, amuarrainak bota eta txapelketak... denetik izango da. Zaldibiako Gaztelu

Arrantza eta Ehiza elkarteak izango du Arrantza Eskolaren funtzionamenduaren ardura. Zein erabilera mota eman aztertzen ari dira, era honetako beste esperientzia batzuk ezagutzen ari baitira, araudia zehazteko.

Urtegia bera arrantzarako egokitzeaz gain, inguruak ere egokitu dute. Aulkiak eta mahaiak jarri dituzte. "Bi mahai luze jarri dira, atsedenlekuetan egon ohi direnak baino luzeagoak. Leku hau ez dugu merendero bihurtu nahi".

Zuhaitzak ere landatu dituzte: lizarrak, haltzak, urkiak... "Kuriosoa bada ere, urki guztiak galdu egin dira", adierazi du Patxi Aierbek. Ezindu fisikoei begira, Irisgarritasun Planaren barruan, legeak hala eskatzen duelako, aparkaleku txiki bat ere egin behar izan dute. "Guk hori ere ez genuen nahi, baina legeak horrela agintzen du. Hormigo berdea bota dugu in-



Amundarain baldintza onetan mantentzen den erreka da. Dena den, urtegiaren, amuarrainak botako dira, lebiaketak, ikastaroak... eskainiko ditu Zaldibiako Gaztelu elkarteak.

paktua gutxitzeko", zehaztu du Zaldibiako alkateak.

Arrantza Eskola egoki-

tzeko lanen kostua, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindu du oso-osorik. 240.000 euroko aurrekontua izan du Arrantza Eskolak.

Bainua, errekan

Urtegiaren erabilera, arrantzarako izango da soilik, bainatzea debekatuta egongo da. "Presaren aldamenean, Amundarain erreka pasatzen da. Jendea bainatzen den lekua da. Beraz, erreka jaisteko pasabidea egokitu egingo dugu".

Horrekin batera, urtegi eta Arrantza Eskolako baldintzak eta arauak zehazten dituzten panelak ere jarriko dituzte.



Presaren urez betetzen denean, zurezko egituraren azpian ura egongo da. Ezindu fisikoentzako egokitu da Arrantza Eskola.

Olagi Urte guztian zabalik
Sagardotegia Eguneroko menua
Jatetxea Karta
Sagardotegiko menua

© 943 88 77 26 ALTZAGA

Arkupe
ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



Ordiziako Tabernarien partetik



*Euskal Jai
zoriontsuak*



guztioi!



Euskal Jaiak 2006




Sandra
Ileapaindegia

Euskal Jai zoriontsuak denontzat!

Tel.: 943 087 056

Garagarza plaza 10

ORDIZIA



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × 24 orduko asistentzia
- × e.a.



Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599


Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486



Jai zoriontsuak!



© 943 88 49 50
Filipineta, 13 - behea
ORDIZIA

**ORDIZIAN ETA BEASAINEN,
KALITATERIK ONENKO ERAIKUNTZAK:**

**ETXEBIZITZAK, APARTAMENTUAK,
LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK**

borja de la
de la Cuesta
Euskal Jai zoriontsuak denoi!

Kortinak,
alfonbrak,
etxeko arropak
Estoreak eta panel japonesak

Tel.: 943 880 432

Plaza Nagusia, 4

ORDIZIA



Irailak 5, asteartea:

17:30ean: 'Bertako produktuekin egindako Elkarteen arteko XVI. Sukaldaritza Lehiaketa' eta 'Goierriko odolki onenaren XII. dastaketa-lehiaketa', Plaza Nagusian.

18:30ean: Buruhandi eta Erraldioen irteera, trikitilariak eta Burrenba txarangak lagundurik, Plaza Nagusian.

Irailak 6, asteazkena:

9:00etan: Goiz eresia Ordiziako txistularien, Tolosako dultzaineroen eta Zumarragako trikitilariaren eskutik.

10:00etan: Gazta, ganadu, fruta eta barazkien, lumagorrien eta perretxikoen erakusketa eta lehiaketak hasiko dira.

12:00etan: Fruta, barazki eta perretxiko lehiaketen sari banaketa, Joxe Migel Barandiaran plazan.

12:30ean: Ganadu eta lumagorri lehiaketen sari banaketa Garagartza plazan.

Ondoren: Bertsolarien, dultzaineroen eta trikitilariaren saioak.

13:00etan: Gazta lehiaketaren sari-banaketa, Beti-Alai pilotalekuan.

17:30ean: Profesionalen arteko eskuzko pilota partidak, Beti-Alai pilotalekuan: 1. partida: Unanue - Errasti / Retegi BI - Begino. 2. partida: Olaizola II - Peñagarikano / Bengoetxea VI - Ruiz.

19:00etan: Euskal dantzen erakustaldia herriko kaskoan Alkartasuna-Ohiaka taldearen eskutik.

19:30ean: Herri kirolen erakustaldia, Jose Migel Barandiaran plazan. Aizkolaria: Arrospide-Olasagasti-Mindegia: Harrijasotzaileak: Inaki eta Inaxio Perurena.

Irailak 7, osteguna:

20:00etan: Japoniako Aoi-Tori emakumezko abesbatzaren kontzertua, Eliz Parrokian.



Zurgindegi

AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxa: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU
ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**



☎ 943 88 79 19
Domingo Unanue, 1
BEASAIN



ORDIZIA BIDEO KLUB

☎ 943 88 79 19
Domingo Unanue, 1
ORDIZIA



Jose LASA,
LAZKAO

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 Tel.: 943 16 22 56 ORDIZIA



Artesania · Opariak · Jantziak

Euskal Jai zoriontsuak denoi!

K. Nagusia, 28 ☎ 943 16 02 48 ORDIZIA

Euskal Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!



HIDALGO
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Diseinua Kalitatea
Berrikuntzak Garantia

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

Irailak 8, ostirala:

22:15ean: Txalo antzerki taldearen 'Erreleboa' lana, Herri Antzokian.

Irailak 9, larunbata:

Egun osoan: Haurrentzat parkea puzgarriekin, Plaza Nagusian: goizean 11:00etatik 13:30era eta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara.

22:30ean: Bertso-jaialdia, Herri Antzokian, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Iker Zubeldia, Aitor Sarriegi, Bixente Gorostidi eta Inaki Apalategi. Gai-jartzailea: Inaxio Usarralde.

Irailak 10, igandea:

12:00etan: Lazkao-Txiki XV. Bertsopaper Lehiaketaren sari-banaketa, Barrena kultur etxean.

20:00etan: Donostiako 'Es-kola' dantza taldearen saioa, Plaza Nagusian.



Fotodepilazioa



Fotogaztetzea



Lor ezazu zure depilazioarentzat irtenbide azkar, progresibo eta ziurra
Probatu laserraren gozamena

Eta goza ezazu zure larruazalaren leuntasunaz



**JOSUNE
ESTETIKA
ZENTROA**

J. M. Barandiaran plaza, 3 ORDIZIA
☎ 943 882 888 centrojosune@yahoo.es
Emaztegaien makilajea



Moldatu zure gorputza
Kendu itzazu gantz lokalizatuak eta zelulitisa ebakuntzirik gabe

Ongizate orokorra
Diagnostiko pertsonalizatua
Kontsulta eta proba dohainik



Akne fototerapia

Asier Zabaleta, dantza garaikidearen erritmoan

*Ezkiotarra
Ertza konpainiako
interpretea eta
koreografoa da*



Antzerki-dantzan aurkitu du bere espresibidea Asier Zabaleta ezkiotarrak. Ertza konpainiarekin espazio berria ireki nahi du, dantza eta artearen arlo ezberdinak uztartuz. 34 urte ditu Zabaletak eta lehenengo pausoak eus-

kal dantzetan egin ondoren, 20 urterekin hartu zuen erabakia dantza garaikidean barneratzeko. Suitzan 5 urte egin ondoren, 2004. urtean Euskal Herrira itzuli zen, etxean bertan sortu eta etxetik bertatik zabaldu nahi baitu du bere artea.



ainararetxeberrria

HANKARA

podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN



oskarbi
oinetakoak

Asier Zabaleta Ezkion jaioa da. 4 urte zituela Zumarragara joan zen bizitzera eta 9 urterekin, Donostiara. 20 urterekin, dantza munduan barneratzeko erabakia hartu zuen. Donostian bertan eman zituen lehenengo pausoak. Suitza aldean gero. Euskal Herrian bizi nahi zuela garbi zeukalako, Suitza utzi eta etxera itzuli zen duela 2 urte, Suitzan bertan sortu zuen Ertza konpainiarekin. Sortu, interpretatu, gestio kontuak eraman... denetik egin behar izaten du Asier Zabaletak.

Hainbeste lan ezberdinen artean zailena zer da?

Pertsonalki, paperak eramatea. Ezagutzen ez dudan mundu bat da eta behararren arabera ikasten ari naiz, behin eta berriz hanka sartuz...

Sortu ala interpretatzea duzu nahiago?

Egia esan, sortzea ez zait hain zaila suertatzen. Nik lana egin dudan konpainia gehienetan dantzariak nahiko parte hartu izan dute sorkuntzan. Pixkanaka ikasten joaten zara, sortzen, ideiak nondik ateratu, landu... beti gustatu izan zaidana da. Naturalki sortzen dut. Baina esfortzu handia da, sortu eta gero barruan egotea.

Erraza al da norberak sortzen duena norberak interpretatzea?

Zaila da, astuna. Ez daukazu inoiz begi bat kanpoan eta espektakulua ez duzu ikusten behar den bezala. Hori nahiko zaila da. Azkenengo honetan bideoarekin ibili behar izan dugu. Eszena grabatu, kanpotik ikusi... baina inoiz ez da berdina. Hasiera batean ez ze-



Interprete eta koreografo

1994. urtez geroztik interprete gisa parte hartu du Asier Zabaletak Arteszena, Adeshoras, Compañía de Vicente Saez, Hojarasca, Q-ro y cía eta Maskarada konpainietan.

1999. urtetik 2004. urtera bitartean, Suitzako Alias konpainiako kide izan zen. Talde horrekin, sei antzerki-dantza lanen sortze lanetan eta beste hainbat proiektu paralelotan ere parte hartu du, hala nola filmak, erakusketa, inprobisazioak, eta abar.

Interprete eta koreografo lanak tartekatuz, gaur arte ondorengo lanak taularatu ditu: 'Danada' (1998) eta 'Belaki efektua' (1999) Eusko Jaurlaritzaren laguntzekin sortuak koreografo berrien erakusketarako, 'EGO' (2003) Bit-art-en ekoizpena eta '10 MASDANZA' Gran Canaria-ko jaialdian lehen saria irabazi zuena, 'EGO-tik' (2004) Eusko Jaurlaritzaren eta Suitzako Loterie Romanderren laguntzekin sortua eta 'Babia' (2005) Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin sortua.

goen pentsatua nik interpretatzea, beste neska batetik egin behar baitzuen paper hori, baina azkeneko momentuan nik egin behar izan dut. Nire nahia kanpora ateratzea da. Ez dantzatu nahi ez dudalako. Dantzatu nahi nuke, baina besteen aginduetara. Barruan eta kanpoan egotea, aldi berean, ez da erraza.

Dantzari batentzako zer da garrantzitsuagoa, paper bat eginda ematea,

ala papera sortzen laguntzeko aukera izatea?

Denetik dago, dantzari bakoitzaren gustuen arabera da. Dantza klasearen edo estiloaren arabera ere bada dago hori. Dantza garaikidean adar asko daude. Adibidez, Nacho Duatoren konpainia ere dantza garaikidea da eta han esaten dietena egiten dute. Nik gehiago landu izan dut antzerki-dantza. Batez ere, hiru urtetan. Antzerki-dantzan, guztioi inte-

resatzen zaizkigun gaietaz hitz egiten dugu. Eta hori talde-lana izaten da: taldean hitz egiten genuen gaiari buruz, bakoitzaren esperientziak bildu, eta denon artean proposatzen genituen eszenak.

Beti antzerki-dantza estiloan aritu izan al zara?

Beti ez. Nahigabe eman den eboluzioa izan da. Dantza hutsa egiten zuten konpainietan hasi nintzen. Beti pixka bat antzerki munduan zebiltzanak, baina testurik ez zuten erabiltzen. Valentzian egon nintzenean, adibidez, Vicente Saez konpainian, dantza hutsa zen. Niri pertsonalki gehiago interesatzen zait zerbait esaten duen dantza edo mugimendua, ez polita bakarrik delako baizik. Hori ere oso ondo dago, ez diot ezer kentzen, baina nik pertsonalki nahiago dut zerbait esatea.

Non egin duzu topo antzerki-dantzarekin?

Batez ere azken urteetan, Ginebrako Alias konpainian, nik uste aurkitu nuela niri interesatzen zaidan espresatzeko lenguaia edo espresatzeko modua. Hemen lenguaiari ez zaio garrantziarik ematen, zer esaten duzunari, ideia da nagusia. Horretarako hitza erabiltzen baduzu, edo dantza erabiltzen baduzu, eszena-teatral bat... hori berdina da. Eta hemen, polita da dena nahastena dela, batetik bestera ohartu gabe pasatzen direla.

Eta ikusleak zer nahiago du? Hemen ba al dago ohiturarik dantza ikustera joateko?

Ez da oso egokia zer nahiago du esatea, oraindik ez daukagu aukerarik abaniko



kutxa

Lehen pausoak ikastolako dantza taldean

Nolatan hartu zenuen erabakia, dantza garaikidera salto egiteko?

Egun batetik bestera hartutako erabakia izan zen. Nik ere ez nuen dantza garaikidea ezagutzen, nahiz eta nire bizitza guztia dantzan eman. Maiatza Dantzan jaialdian, orain egiten ez dena, hemengo jendeak egindako 'Zilbor esteak' espektakulua ikusi nuen, izugarri gustatu zitzaidan eta egun batetik bestera erabaki nuen hori egin nahi nuela. Aste hartan bertan, Donostiako akademia batera joan, eta horrelaxe egin nintzen. Kuriosoa izan zen, akademiako zuzendariak, Iñaki Landak, lehenengo egunetik eman zidan diskurtsoa izan zen, hau oso mundu gogorra da, ordu asko sartu behar dira... bazirudien horretara eman behar nuela nire bizitza. Ni harrituta gelditu nintzen horrelako sarrerarekin.

Beldurtuta ala komentzuta ikusiko zintuen.

Ba, agian horregatik, egun batetik bestera hartutako erabakia zelako.

Dantza ikasketak non egin dituzu?

Hemen urtebete egin nuen. Eskola horretan hasi nintzen, gero eta ordu gehiago sartzen eta azkenean eskolak eskaintzen zituen ordu guztiak egin nituen. Gero Zuricha, Suitzara, joan nintzen, hango eskola profesional batera, Diputazioaren laguntzarekin, baina ez



nuen nire lekua aurkitu. Oso eskola klasikoa zen. Dantza garaikidea astean bi aldiz bakarrik egiten genuen. Eta gainontzeko ordu guztiak klasikoa egiten, erreperitorioa egiten... Ondo etorri zitzaidan. Hasten ari nintzen eta nik nahi nuena ez zela jakiteko balio izan zidan. Hona itzuli nintzen eta Arte Ederrak karrerarekin jarraitu nuen. Bilbon hasi nintzen klaseak hartzen. Arteszenarekin lehenengo lana eskaini zidaten, 'Amets eroak'. Lana nuen bitartean jarraitzea erabaki nuen eta bestela ikasketetara itzuliko nintzela pentsatu nuen.

Gauzak nahi bezala doazkizu beraz.

Bai. Dantza arloan ez dago mutil askorik, beraz beti ere errazagoa da han edo hemen lan bat aurkitzea. Pixkana, bata bestearekin lotuz denetatik probatzen, eta ikasten aritu izan naiz, seguruenik, eskola batean baino gehiago ikasiz.

Euskal Herriko hainbat dantzari, Dantza Eskolaren aldeko aldarrikapena egiten ari dira.

Oso beharrezkoa da Euskal Herrian dantza eskola bat sortzea. Ez dago ezer eta jende asko dago dantza egiten duena eta mundu osoan zabalduak. Kanpora joan beharra dago, formazioerako eskola bat ere ez dagoelako, eta konpainiarik ere ez dagoelako.

Herritik lan egitea erabaki duzu. Zergatik?

Garbi neukan, Euskal Herrian bizi nahi nuela. Urte asko neramatzan kanpoan bizitzen. Justu, Suitzara joan nintzen lehenengo urtean, nire bikotea ezagutu nuen, hemengo, eta azken urteetan soldata osoa ia bidean gatastuta dut. Suitzian, profesionalki oso gustura nengoen, gustuko nuen talde batean, baldintza ezin hobetan, bai pertsonalki eta bai diru aldetik. Baina ezingo nuke Suitzian bizi. Oso kaltetarra naiz eta han lanerako bizi dira. Neguak oso-oso tristeak izaten dira. Oso ezberdina da. Hasiera-hasieratik garbi neukan itzuliko nintzela. Horretaz aparte, nik beti egin nahi izan ditut nire proiektuak. Besteenak egitea oso ondo dago, baina azken urteetan egoera komodo bat bilakatu zen. Nik ere nire lantxoak egiteko grina geroz eta handiagoa zen. Han ere aukera izango nuen nire gauzak egiteko, agian hemen baino hobeto, baina ez nuen Suitzian bizi nahi. Nire burua behartzea ere izan da. Aiztoa lepoan jarrita ez daukadan bitartean ez naiz mugitzen, eta hemen banekien zer neukan.

Telebistan dantza modan dagoela dirudi.

Bai, nahiz eta nik egiten dudana ez izan, ondo iruditzen zait, dantza zabaltzea. Oso sana iruditzen zait gainera, gimnasio batean makina bati lotuta egotea baino. Beste komertzial interes batzuk egongo dira eta ez dakigu zenbaiteraino izango den dantza bultzatzeko helburua, baina ondo dago dantza zabaltzea.

Espaniar estatuan zein da dantza garaikidearen egoera?

Hobeto daude, Bartzelonan eta Madrilen tradizio txo bat dago, eskolak daudelako, kanpotik talde gehiago ekartzen dituztelako, ikusle bat osatzen ari delako... Egia esan, Estatu mailan

edo muestuario bat egiteko. Ez da ezagutzen eta batez ere antzerki-dantza oso-oso gutxi egin da. Urte gutxiko esperientzia daukagu eta pixkana-pixkana bidea egiten ari gara. Orduan, ikusleria oraindik egin gabe dago, beraz ikusleak lehenengo egin behar duena da, gauza ezberdin asko ikusi eta orduan edukiko du aukera zer

nahiago duen jakiteko. Beste herri batzuekin alderatuta atzeratuta gaude.

Zu Suitzian ibili zara. Han egoera beste bat al da?

Bai baina han ere kexatu egiten dira. Han ere gehiago nahi dute baina nik uste herri guztietan kultura azkeneko disziplina dela. Hala ere Suitzian, hemengoarekin alderatuz, askoz ere tradizio

handiagoa dago dantza garaikidean. Lehen esan bezala, dantza estilo asko daude eta Suitzian guztientzako lekua dago. Guzti horientzako zirkuitoak daude, guzti horientzako antzokiak daude eta guzti horientzako ikuslea dago. Hemen ez daukagu zirkuito bakar bat ere.

Suitzatik itzuli eta Euskal

gehiago mugitzen naiz, Euskal Herrian baino. Eusko Jaurlaritzak urtero egiten du zirkuito bat, diruz laguntzen dituzten taldeekin. Hortik kanpo ez dago ezer ez.

Pixkanaka, baina zabalzen ari da publikoa beraz.

Hasieran, jende berdina elkartzen ginen: batzuetan dantzan eta besteetan lagunak dantzan ikusten. Prozesu bat da: hasieran gauzak ezezagunak dira eta publikoa sortu egiten da.

Hemen ikuslea sortzen ari dela diozu eta antzoki antzoki egokirik ba al dago?


Bai. Herri guztietan dago Kultur etxe bat baina ikusi dezagun, Kultur etxe horietako dantza programazioa eta zero izango da. Zero-zero edo dantza espektakulu bat, edo bi. Gipuzkoa osoan, Donostian Egiako Kultur etxea, Irunen Amaia antzokia... eta ez pentsa dantza ikuskizun gehiago dagoenik. Normala ere bada. Jendeak ez gaitu ezagutzen eta jendea ez da joaten, arraro egiten zaio. Jendea ohitu egin behar da eta jendeak aukera izan behar du ikusteko lehenengo, eta gero aukera hori berak erabakiko du. Antzokirik ez bada betetzen, programatzaileak ere ez du dantza jarriko.

Produktore lana beraz, zaila izango da ezta?

Bai, oraindik instituzio aldeetik, dirua bota egin behar da, inbertsioak egin. Nahiz eta lau katu joan, programatu eta publizitate lan on bat egin. Hasiera batean jendeak ikusi dezala, eskoletan ere bai. Suitzan obra guztiekin egiten genituen haurrentzako funtzioak. Hemen antzerkera agian joango dira urtean behin ala bitan, baina dantza ikustera gutxi.

Goierri egoera ere ez da ezberdina.

Herri gehienetan daude antzokiak, majoak, gauza asko egin daitezkeenak. Kultur etxeak programatzen dituz-



Ertzarekin, ertzetik ertzera

Zer da Ertza konpainia?

Ginebran nengoen azkeneko urtean bakar-saio edo solo bat, egin nuen. Han estreinatu nuen. Han dirulaguntza eskatzeko talde bat edo elkarte bat sortu behar da. Horretarako Ertza sortu nuen. Solo horrekin hona etorri nintzen eta hemen ere gauza bera. Dirulaguntzak-eta eskatzeko errazagoa da atzean elkarte bat baldin badago. Izen berdinarekin ari naiz. Taldea finkatzen ari naiz pixkanaka-pixkanaka. Orain proiektu bakoitzerako jende ezberdinarekin lan egin dut, bat izan ezik, Pilar Andres, espektakulu guztietan dago. Pixkanaka gustatuko litzaidake taldea finkatzen joatea.

Zein da Ertzaren helburua?

Ertza-ren helburuetan sartzen da espazio berri bat irekitzea, non, artearen arlo ezberdinek beren lekua aurki dezaketen gaur egungo dantzarekin batera; adar ezberdinen arteko elkarriketa eta bategitearekin lengoia eszenikoa nabarmenki aberastuz. Testuez, pertsonaiez, aurretik grabaturiko irudiez, edo eta partehartzaileek proposa dezaketen edozein espresibidez baliatuz, adierazi nahi dena modurik egokien eta zuzenenean taularatu ahal izateko, eta horrela landu ahal diren gaien aukera ere zabaldu ahal izateko. Arreta berezia emango diogu emozioak zuzenki sortzen duen mugimenduari, edertze estetiko hutsetatik urrunduz eta mugimenduaren egia bilatuz.

ten teknikariak normalean ez dira ausartak. Nik egiten dudana generoa, antzoki alternatiboetarako gehiago izan daiteke, formatu txiki-ko antzokietarako. Ez dira arriskatu ere egiten, segururra joaten dira, antzokia betetzera.

Euskal dantzak nahiko egoera onean daudela dirudi ba.

Ba horregatik. Euskal dantzak nahiko onartuak daude eta izugarriko mugimendu polita dago. Ni bezala, beste asko hasi dira euskal dantzetatik. Indarra daukate euskal dantzek, elastizitatea eskatzen dute eta presuntakuntza bat eskatzen dute eta hori oso ona da gero

beste dantza mota batean aritzeko. Abiatzen gara, baina gero kanpora joan behar dugu hemen ez dagoelako. Eta pena da, hemen oso harrobi ona dagoelako euskal dantzetan.

Herriko dantza taldean hasi zinen...

Bai, lehenengo Urretxuko Ikastolan eta gero Donostia-
ra etorri nintzenean ere bi taldetan ibili nintzen, lehenengo Artezkan eta gero Kresalan. Urte gehienak Kresalan egin nituen.

Euskal dantzatan zein dantza mota gustatzen zizaitzun gehien?

Dena, baina batez ere indarreko dantzak, gogorrak.

Aurrera begira ze asmo

daukazu?

Nire proiektuak aurrera ateratzea. Lehenengo urteetan zaila izan zen, egiten duzuna saltzen, bidea irekitzen joan behar delako... orain baditut hiru lan, eta bakoitzak bere zikloa betetzen du eta beti daukat zerbait. Egia esateko, aurtun, nahiko emanaldi atera zaizkigu eta alde horretatik pozik nago. Aurrerantzean ere, gustatuko litzaidake, nire proiektuak gauzatzea.

Ametsa zein duzu?

Orain, gaur, arlo artistikoan bakarrik lan egitea da nire ametsa, bestelako lanik egin gabe, batez ere paper kontuak eraman behar izan gabe.



Beasain

Igartza Loinazko jaiak asteburuan

Irailak 8, ostirala:

- 18:30ean:** Meza eta erromeria.
- 19:00etan:** Txupinazoa, festen hasiera.
- 19:00etan:** Buruhandi eta txistularien irteera.
- 22:30ean:** Antzerkia. Trapu Zaharra konpainiak 'Tetra-rip' antzezlan aurkeztuko du.
- 23:30ean:** Kontzertua.

Irailak 9, larunbata:

- 11:00etan:** Marrazki tailerra.
- 12:00etan:** XL taldearen graffiti erakustaldia.
- 16:00etan:** Gezi tiraketa. IX. Igartza Saria.
- 16:30ean:** Mus txapelketa.
- 17:00etan:** Toka eta Igel txapelketak.
- 18:30ean:** Euskal dantzen jaialdia Ostadar eta Arkupe dantza taldeen eskutik.
- 21:00etan:** Afari herrikoia.
- 00:00ean:** DJ emanaldia.

Irailak 10, igandea:

- 08:30ean:** VI. Ehiz txakurren lehiaketa.
- 17:00etan:** Igartza Loinazko II. Futbolin txapelketa.
- 18:30ean:** Korri eta Xalto pailazoek 'Show berria pres-tatzen' emanaldia eskainiko dute.

JULIAN MUJICA
Harategi - Urdaitegia

Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak
Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 10 ☎ 943 88 01 96 BEASAIN

EUSKAL OKELA
KALITATEKO

Harategi - Urdaitegia
Festa onak pasa!
Saltsamendi

☎ 943 888 646
Igartza Oleta, 12
BEASAIN

AKELARRETA
TABERNA

LOTO PRIMITIVA
1 X 2

Festa onak pasa!

☎ 943 08 61 62
Igartza Oleta, 12
BEASAIN

ANZIZAR
T A B E R N A

Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 8 ☎ 943 88 43 17
BEASAIN

Mutiloa

Lierniko jaiak

Irailak 3, igandea:

09:30an: XXV. Lierniko Txirrindulari proba, Lierniko Txirrindulari elkartearen eskutik.

Egun osoan: Elortza anaiak erromerian.

Irailak 8, ostirala:

11:00etan: Meza Nagusia.

Egun osoan: Erromeria Jon Ostolaza eta Aintzane Agirrebeña trikitilariekin.

Irailak 9, larunbata:

17:00etan: Suziriak eta kanpai jotzea.

17:30ean: Ume jolasak: Sormen tailerra eta Ani Martinez ipuin kontalariak.

21:00etan: Auzo afaria, Patxi erretegian.

Afari ondorena alaitzeko eta goizaldera arte, Oier eta Arkaitz Baltzola trikitilariak.

Irailak 12, igandea:

Goiz eresia Segurako txistularien eskutik.

10:00etan: XXV. Usakume tiraketa, Mutiloko Aitz-buru elkarteak antolatuta.

12:30ean: Meza Nagusia.

13:15ean: Toka lehiaketa.

Eguerdian: Elustondo anai-arrebak trikitilariak.

18:30ean: Herri kirolak, Zurgai taldearen eskutik.

Ondoren: Elustondo anai-arrebekin erromeria.

Ordizia

Eskarabillako jaiak

Irailak 15, ostirala:

22:00etan: Mus txapelketa, Itxaropena Elkartean.

Irailak 16, larunbata:

10:30ean: Haur jolasak.

12:00etan: Txupinazoa bonberian.

Ondoren: Erraldoiak, buruhandiak eta trikitixa.

Ondoren: Herri poteoa txarangakin.

17:00etan: Oin lasterketa (haurrak eta kimuak). Izen-emateak irteeran. Ondoren txokolate jana.

18:00etan: Koadrilen arteko herri kirolak.

20:00etan: Haur danborrada.

22:00etan: Mozorro gaua. Berbena, 'Beste Bat' taldearekin eta Djtxo!!

Goizaldeko 6:00etan: Matutina.

Irailak 17, igandea

11:00etan: Alborada, herriko txistulariekin.

12:00etan: Patxin eta Potxin pailazoak.

13:00etan: Kale animazioa: trikitixa, gaiteroak eta Antton Imaz eta J. I. Iturrioz abeslariak.

14:30ean: Herri bazkaria: zikiro-jatea.

Ondoren: Erromeria Jalisko Band-ekin.



Zerain

Kultur astea eta azoka ekologikoa

Irailak 10, igandea:

Hirugarren adinekoen eguna: meza eta bazkaria.

Irailak 11, astelehena:

20:30ean: Iñaki Egañaren hitzaldia: '36ko gerrateko desagertuak'.

Irailak 12, asteartea:

20:30ean: Luis Mari Intzaren hitzaldia: 'Erlea gure sendagile'.

Irailak 13, asteazkena:

20:30ean: Jose Luis Ugarteren hitzaldia: 'Zeraingo haize olak'.

Irailak 14, osteguna:

20:30ean: Mikel Zalbideren hitzaldia: 'Juan Inazio Iztueta'.

Irailak 15, ostirala:

20:30ean: Laponiari buruzko ikusentzunezkoa.

Irailak 17, igandea: XII. Azoka ekologikoa:

9:00etatik 14:00etara: Azoka.

Arratsaldez: Erromeria Xapre trikitilariarekin, lehengo erara.

Egun osoz: Erakusketak eta tailerrak.

Iragarki laburrak:

Hemendik aurrera **Goierritarrako iragarki laburrak kobratu egingo dira,**

hitz bakoitzeko 0,60 euro.

Horren truke, iragarkia bi aldiz argitaratuko da **Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.**

Harremanetarako:

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info

gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

salgai

Segurako erdigunean 72 m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela eta ganbara. Altzariekin. Garajea aukeran. 943801736.

Ataunen pisua salgai, berritu ondoren estreinatzeko. Sukaldea eta bainugela jarrita. Bi logela eta egongela. Leku onean. Aukera. Inmoeki: 675705268.

elkarbanatzeko

Madriren ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzailea. 914595390.

GARAJEAK

salgai


Lazkaon 43 m²ko garajea salgai. 635872270 - 653708947.

Beasainen, Otaola kalea 7an garaje itxia alokatzen da. 943027693.

NEGOZIOAK

errentan eman

Kafetegia alokatzen da Beasainen. Bikote arduratsua nahiago. 656799695 / 943888288



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

ZUGAZTIBI

AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmuele ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



ANZIZAR, S. A.



Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

BESTELAKOAK

salgai

Prentsa eta sagarra txikitzeko makina salgai. 943887726.

Eskopeta, superpuesta, salgai. 943801179.

Shoei markako kasko berria salgai, oso prezio onean. 661276347.Amaia.

Ziklomotorea salgai, Kinko Dink 5 (500 euro, negoziagarriak). 943160377.

Foto Ibiltaria argazki denda likidazioetan dago. Likidazioak hasi berriak dira. Inguratu dauden aukerak ikustera.

IBILGAILUAK

salgai

Honda CBR 900 RR salgai. 2002. urtekoa. 16.000 km. Oso egoera onean. 658744903.

ANIMALIAK

opari

Bi hilabeteko artzain belgiar txakurra oparitan. 943882034.

Katuak opari. 678924478.

LANA

eskaerak

Seguran neska bat behar da etxeko lanak egin eta umeak eskolara eramateko. Ibilgailua beharrezkoa. 943801088.

Akademiak irakasleak behar ditu gai desberdinetan adituak. Kurrikulumak honako helbidera bidali: 61 posta kutxa, 20240 Ordizia.

Zerbitzaria behar da erretegi baterako larunbat gau eta jai batzuetarako. 615700408.

Mandio tabernarako zerbitzaria behar da. 943801705.

Legazpiko taberna batean pertsona bat behar da tabernari lanerako. 659652198.

Ordiziako arropa denda baterako neska bat behar da. Interesatuak argazkia eta curriculum bidali 45 posta kutxara, 20240. Ordizia.

Marrazketa tekniko emateko irakaslea behar du Beasaingo akademia batek. 685722403.

eskaintzak

Emakumea adineko pertsonak egunez edo gauez zaintzeko prest dago. 616889923.

Informatikan titulatu. Ordenagailu konponketak egiten ditu. Oso merke. 676986446.

Garbitzaile lanak egingo nituzke. 664581264 - 679890464.

Emakume bat eskaintzen da, ibilgailuarekin, garbiketa lanerako, adineko pertsonak zaintzeko edo lan ez kalifikatueterako. 678781985 - 606180560.

Itzulpenak egiteko prest nago, euskara/gaztelaniatik alemanierara. Christiane Bendel, 943164897.

cristinabendel@yahoo.es

IÑAKI ARIN

Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5
BEASAIN



www.xetai.net
Zurgintza eta altzarigintza zure neurria
Tel.: 658 70 99 22 Faxa: 943 88 85 41
BEASAIN



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Pottoka

K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



Gabiriako luistarrak 1949an

Ander Iurritak utzi digu argazkia. Izen-abizenak errepikatzen diren kasuetan, etxearen izena darama hesi artean.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Felipe Gabilondo, Patxi Izuzkiza, Patxi Urkiola, Manuel Amundarain, Txomin Urkiola, Pakito Oñatibia, Angel Mari Lopez, Joxe Arozena, Inaxio Garziandia, Joxe Migel Legorburu, Joxe Migel Andola, Jesus Lopez, Patxi Oria, Damian Lasa eta Gabriel Galdos.

Bigarren ilaran: Joxe Zelaia, Patxiko Irizar, Joxe Aramendi, Bittor Oria, Migel Garziandia, Patxiko Alustiza, Xegundo Zumalakarregi, Fernando Azarola, Juan Mari Lopez, Joxe Apaolaza, Luis Arruabarrena eta Antonio Oñatibia.

Hirugarren ilaran: Joxe Oñatibia (Etxeberri, Bizkai), Antonio Arizmendi, Lontxo Oñatibia, Juan Mendiguren, Fortunato Ariztimuño, Baxilio Oñatibia, Joxe Mandiola, Luzio Gabiria, On Lorenzo Salaberria, Aita Bernabe, On Juan Orbegozo, Antonio Garmendia, Martin Urkiola, Juanito Urkiola eta Joxe Antonio Enatarreaga.

Laugarren ilaran: Xerafin Irarrazabal, Roman Jauregi, Julian Ariztimuño, Ramon Alustiza (Landeta), Joxe Oñatibia (Aranetxiki), Paulo Murua (Alkaintxiki), Manuel Aranburu, Martin Irastorza, Periko Garziandia, Juan Murua, Nikolas Alustiza, Joxe Mari Goia eta Ramon Alustiza (Oñatibi Haundi).

Lurrean eserita: Joxe Iruin, Jabier Lasa, Joxe Ramon Aramendi, Juan Inaxio Izagirre, Pepe Arzelus, Joxe Alustiza, Jesus Arruabarrena, Benito Arrondo eta Joxe Ramon Lopez.

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5 Beasain 943 160 120
www.ikaskide.net

TAILERRAK

- ✓ Ikasketa teknikak
- ✓ Barreterapia
- ✓ Erlajazio teknikak
- ✓ Nola aurkitu lana
- ✓ Jende aurrean hitzegin
- ✓ Emozioen kontrola

INFORMATIKA

- ✓ Photoshop
- ✓ Power point
- ✓ Web orrien diseinua
- ✓ Office
- ✓ Mekanografia

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH
- ✓ Batxilergoa
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Arreta pertsonalizatua
- ✓ Talde txikiak

MATRIKULA IREKIA

2006-2007 IKASTURTEA

INGELERA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera
- ✓ Azterketa ofizialak prestatzeko aukera (KET, PET, First Certificate)

izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño baserria
IDIAZABAL


TOLARE

SAGARDOTEGIA

☎ 943 18 01 19 **ATAUN**

GIPUZKOAKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN XII. AZOKA

Azoka baino gehiago



IRAILAK 17 ZERAIN

9:00etatik 14:00etara azoka

Arratsaldez: erromeria lehengo erara

Egun osoz: erakusketa eta tailerrak

ZERAIN PARKE KULTURALA



- Herri Museoa, Larraondo Zerrategia, Aizpeako Meategiak, Kartzela.
- HARIZTI-ERDI ATERPETXEA
- MANDIOA DENDA:
herriko produktuak, artisautza
- INFORMAZIO BULEGOA: urte osoan zabalik

Herriko Plaza z/g Tel: 943 801 505 Faxa: 943 801 606 E-mail: mandio@rebestb.es



ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJU

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

suquia

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA

e-posta: suquia@jazzfree.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

elektragailuak

Elektragailuetan azken berrikuntzak

Induziozko plaka bitrozeramikoak



Bakarrik garbitzen diren labe pirolitikoak

Arropa garbigailu elektrikoak



0°-ko hozkailuak

Ontzi garbigailu isilak



Neurri guztietako izozkailuak

Gure izatea, kalitatea eta zerbitzua

Etxean bertan martxan jartzea dohainik